

10. NAFARROAKO KIROL JOKOETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO NEURRIAK EZAGUTU, ONARTU ETA BETETZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

Izen-deiturak:.....,
adinez nagusia, NAN zenbakia:, aita/ama/ legezko tutorea den
aldetik

adingabearena

ADIERAZTEN DUT:

- 1.–Klubaren arduradunen informazioa jaso dut eta ezagutzen ditut COVID-19a prebenitzeko eta haren aurrean jarduteko protokoloak, ezarri dituztenak Nafarroako Kirol Jokoen programak, instalazioaren titularrek eta kasuan kasuko kirol federazioak, baita osasun-agintaritzak ezarritakoak ere.
- 2.–Arduraz beteko ditut COVID-19aren higijene eta segurtasun protokoloak, antolatzaileak xedatu dituenak, eta onartuko dut klubeko COVID arduradunak erabakitzea motu propio ni jardueratik kanpo eta kirol instalaziotik kanpo uztea, betetzen ez baditut.
- 3.–Ez dut positiborik eman eta ez dut harreman esturik izan COVID-19aren balizko edo berretsitako sintomatologia izan duen pertsona batekin edo batzuekin entrenamendua edo partida izan baino 14 egun lehenago.
- 4.–Saioa, entrenamendua edo lehiaketa izan baino lehen edo entitatearen kirol espazioetara joan baino lehen, egiaztatuko dut osasun egoera, eta, COVID-19aren sintomarik ohikoenak izanez gero, hala nola sukarra, hotzikarak, eztula, arnas-faltaren sentrazioa, usaimena eta dastamena murriztea, eztarriko mina, muskuluetako mina, buruko mina, ahulezia orokorra, beherakoa eta goitikoa izatea, ez naiz jarduerara joanen eta horren berri emanen diot segituan kirol entitateko klubeko COVID arduradunari eta kasuan kasuko osasun etxeari.
- 5.–Halaber, jakinaraziko diot kirol entitateko osasun arduradunari, nire bizikidetzak unitateko norbait bakarturik badago COVID-19a diagnostikatu diotelako, edo etxebizitzako berrogeialdian badago harreman estua izateagatik COVID-19aren sintomak edo diagnostikoa dituen norbaitekin.
- 6.–Baimena ematen dut entitateak erregistratu dituen nire harremanetarako datu pertsonalak eman dituzan, osasun-agintaritzak eskatzen baditu COVID-19aren diagnostikoa dutenen kontaktuen lokalizazioa egiteko.
- 7.–Ez nago osasun-agintaritzak ezarritako arrisku taldeetan, edo, kasua bada, horren berri emanen diot kirol entitateari, jarduerak hasi baino lehenago, eta, kasu horretan, nire erantzukizunaz hartuko dut parte jardueran.
- 8.–Onartzen ditut Nafarroako Kirol Jokoen programan parte hartzeko baldintzak.
- 9.–Onartzen dut eta jakitun naiz kirola egiteak, hala entrenamenduetan nola lehiaketetan, COVID-19a kutsatzeko arriskua dakarrela. Ez diot erantzukizunik eskatuko entitate antolatzaileari arrazoi horregatik.
- 10.–Baimena ematen dut klubaren arduradunek edo antolatzaileek gorputzeko tenperatura hartzeko, COVID-19aren sintomatologiaren susmoa izanez gero.



Goian aipatutako arauak betetzea kirolari bakoitzaren eta klub parte-hartzaileen erantzukizun indibiduala da, eta Federazioak ez du inongo erantzukizunik kirol jarduera egitean sor litezkeen kutsatzeengatik.

Eta behar diren ondorioetarako jasota geldi dadin, agiri hau sinatzen dut

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)an

Sinadura